
PRENTSA OHARRA

EMAKUMEEN ARTEKO ANIZTASUNA OSPATZEN DU BILBAOARTEK MARTA PÉREZ ELOSUAREN 'EZ GARA BERDINAK' ERAKUSKETAREKIN

BilbaoArteko Kristalezko Patioan izango den erakusketa honek atea zabalik izango ditu martxoaren 7tik 15era

(Bilbon, 2019ko martxoaren 5an). Fundazioaren artista erabiltzailea den Marta Perez Elosua argazkigilearen *'EZ GARA BERDINAK'* erakusketari irekiko dizkio atea BilbaoArte, gehienbat Bilboko bihotzaren inguruan bizi diren ehun emakumeren erretratuak biltzen dituena. Fundazioaren lantegietan ia guztiz ekoiztu den erakustaldi hau gure gizartean dagoen aniztasuna biltzea eta honetan sakontzea du helburu, emakume protagonisten errealitateei hurbiltze poetiko eta intimo baten bidez. *'EZ GARA BERDINAK'* martxoaren 7an inauguratuko da 19:30ean eta martxoaren 15era arte ikusi ahal izango da BilbaoArteko Kristalezko Patioan.

la urte baten zehar garatutako proiektu handinahi honek, ez ditu ehun argazki biltzen bakarrik baita borroka, gainditze eta ospakizun istorioak ditu. Ezagun eta ezezagunen artean aukeratzen ditu Perezek bere protagonistak, batzuk ustekabez aurkituz eta beste batzuk bilatuz. Hondo beltz eta argi-patroi berberaren erabileraren bidez, emakumeari ematen dio protagonismo osoa argazkilariak, haien adina, estatus soziala edo lanbidea alde batera utziz.

Erretratatuak beraiek idatzi dituzten zenbait hitzez lagunduta doa argazki bakoitza; esperientzia pertsonal bat azaltzen duten banakako kontakizunak dira hauek: inozo edo dibertigarrietatik, batek bere alabaren ezkontzari buruz idatzi zuen, tragikoenera, beste batek berriz, ablazioaren biktima izatearen lekukotasuna eman zuena. Formatu honen bidez, emakume bakoitzak bizi duen errealitate paraleloak hurbiltzea lortzen du Perezek, ikuslea protagonistekin elkartuz.

BilbaoArte proposatutako erakustaldi honetan, erretratuak soinudun zortzi pantaila bertikaletan azalduko dira, hauek laguntzen dituzten lekukotzekin batera. Forma estetiko, zuzena eta atsegin baten bidez argazkilariak ehun emakume hauen "arima" ezagutzera ematen du. Egilearen arabera *'EZ GARA BERDINAK'* proiektuak *"emakume guztiei eskainita dago, Historiak ezabatu edo orbandutakoenak bereziki"*.

Erakusketa ikusgai egongo da Kristalezko Patioan astelehenetik ostiralera 17:30etik 20:30era, 2019ko martxoaren 8tik 15era arte. Doako sarrera.

NOTA DE PRENSA

BILBAOARTE CELEBRA LA DIVERSIDAD ENTRE LAS MUJERES CON LA EXPOSICIÓN 'NO SOMOS IGUALES' DE MARTA PÉREZ ELOSUA

El Patio de Cristal de BilbaoArte tendrá abiertas las puertas de esta muestra entre el 7 y el 15 de marzo

(Bilbao, 5 de marzo de 2019). BilbaoArte abre sus puertas a la exposición 'NO SOMOS IGUALES' de la fotógrafa Marta Pérez Elosua (artista usuaria de la fundación) que reúne retratos de un centenar de mujeres que habita, en su mayor parte, en los alrededores del corazón de Bilbao. La muestra, producida en gran parte en las instalaciones del centro, tiene como objetivo ahondar y recoger la diversidad que existe hoy en nuestra sociedad permitiendo al público un acercamiento poético e íntimo a las realidades de sus mujeres protagonistas. 'NO SOMOS IGUALES' se inaugura el 7 de marzo a las 19:30 horas y podrá verse en el Patio de Cristal de BilbaoArte hasta el 15 de marzo.

Desarrollado a lo largo de casi un año, este ambicioso proyecto no sólo recoge cien instantáneas, también reúne cien historias de lucha, superación y celebración. Pérez selecciona a sus protagonistas entre conocidas y desconocidas, algunas encontradas por azar y otras buscadas a propósito. Mediante un fondo negro y el mismo patrón lumínico, la fotógrafa confiere el protagonismo a la mujer como tal, obviando edad, estatus social o profesión.

Cada fotografía es acompañada de unas palabras escritas por las propias retratadas, relatos individuales que muestran una experiencia personal, desde la más inocua o divertida, como aquella que destaca la boda de su hija, hasta la más trágica, como la de aquella que fue víctima de la ablación cuando era niña. A través de este formato, Pérez logra acercar las realidades paralelas que vive cada mujer y conectar al espectador con las protagonistas.

En la presente muestra acogida por BilbaoArte, los retratos son presentados en ocho pantallas verticales sonorizadas con los testimonios que las acompañan. De una forma estética, directa y amable la fotógrafa revela "el alma" de estas cien mujeres. Según la autora, el proyecto "NO SOMOS IGUALES" está *"dedicado a todas las mujeres, en especial a aquellas borradas o mancilladas por la historia"*.

La exposición permanecerá abierta en el Patio de Cristal de BilbaoArte de lunes a viernes de 17:30 a 20:30 entre el 8 y el 15 de marzo de 2019. Entrada gratuita.



Informazio gehiago / Más información



Fundación BilbaoArte Fundazioa

Prensa y Comunicación / Prentsa eta komunikazioa

Alicia Prieto | 607 606 458 | prentsa@bilbaoarte.eus